

2 0 0 3

Literatur Sariak



"R. M^o Azkue"
saria



Idazle gazteak

R. M. AZKUE LITERATUR SARIAK 2003

Prentsa agiria

- 11 eta 18 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduriko deialdia da
- Orotara, 385 lan aurkeztu dira

Gaur, martxoaren 12an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan 2003ko Re-surreccion Maria Azkue Literatur sariak banatu dira. Euskaltzaindiak berak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzeko asmoz; sortuak dira.

Jakina denez, sariak bi lan mota onartzen dituzte euren baitan, narrazioa eta olerkia, alegia. Adinari begira, bi maila, dira: A maila, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 15 eta 18 urte bitartekoentzat.

Hauxe dugu aurtengo edizioan izan den partaidetza kopurua:

A mailan, narrazioan: 206 lan.

A maila, olerkian: 15 lan.

B maila, narrazioan: 113 lan.

B maila, olerkian: 51 lan.

Orotara, beraz, 385 lan aurkeztu dituzte Euskal Herri osoko gaztetxoek.

EPAIMAHAIKOAK

Urtero bezala, aurtten ere literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, beti ere Euskaltzaindiak izendatuta. Aurtengo epaimahaikoak hauek izan dira:

A mailan: Igone Etxebarria Zarnalloa, Manu Lopez Gaseni eta Amagoia Lopez de Larruzea Zarate.

B mailan: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Kirmen Uribe.

SARIDUNAK

A mailako epaimahaikoek honako sariak emateko erabakia hartu dute:

Narrazio alorrean:

Lehen Saria: «Tikot Ortxatarren historia». Egilea: **Enma Arestegi** (Hazparne - Lapurdi). Kanboko Xalbador Kolegioko ikaslea da. Laguntzailea: Pruden Sodupe Azkune.

Bigarren Saria: «Bizitza bat bidean aurrera». Egilea: **Maite Agirre Mujika** (Beasain - Gipuzkoa). Beasaingo Loinazpe Institutuko ikaslea. Laguntzailea: Maria Jesus Iñarra.

Hirugarren saria: «Laguntza eske». Egilea: **Alaitz San Vicente Martin** (Gasteiz - Araba). Tokieder Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Miguel Ruiz.

Olerki alorrean:

Lehen Saria: «Denbora». Egilea: **Hodei Balanzategi Sustaeta** (Arrasate - Gipuzkoa). Arrasateko Arizmendi Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Mariasun Garai.

Bigarren saria: «Ahizpa ttipia». Egilea: **Enma Arestegi** (Hazparne - Lapurdi). Kanboko Xalbador Kolegioko ikaslea da. Laguntzailea: Pruden Sodupe Azkune.

Hirugarren saria: «Zure, besoetako babes». Egilea: **Maialen Linazasoro Elorza** (Arrasate - Gipuzkoa). Arrasateko Arizmendi Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Mariasun Garai.

B mailako epaimahaikoek, berriz, honako erabakiak hartu dituzte:

Narrazio alorrean:

Lehen Saria: «Amildegiaeren amaieran». Egilea: **Ane Arbillaga Etxarri** (Pasai Donibane - Gipuzkoa). Pasai Lezo Lizeoko ikaslea. Laguntzailea: Julen Ezkurdia.

Bigarren Saria: «Whiskyarekin dantzan». Egilea: **Ihintza Erremundeguy Beloki** (Baiona - Lapurdi). Etxepare Lizeoko ikaslea. Laguntzailea: Irune Beloki.

Hirugarren Saria: «Bizitzaz haratagorako gutuna». Egilea: **Arantzazu Ugarte Zubia** (Oñati - Gipuzkoa). Oñatiko Elkar Hezi zentroko ikaslea. Laguntzailea: Larraitz Madinabeitia.

Maila honetan, epaimahaikoak ondoko lanak argitaratzeko gomendioa eman du:

- «Mespretxuaren samina». Egilea: **Bidatz Badiola Imaz** (Ataun - Gipuzkoa). Txindoki Alkartasuna Institutoko ikaslea. Laguntzailea: Joxean Otaegi.
- «Elezahar apokrifo bat». Egilea: **Antton Alberdi Estibariz** (Elgoibar - Gipuzkoa). Elgoibarko Bigarren Hezkuntzako Institutoko (BHiko) ikaslea. Laguntzailea: Andres Alberdi.
- «Saint Georgeko ikasleen misterioa». Egilea: **Jabi Rodriguez Mariano** (Segura - Gipuzkoa). Beasaingo Loinazpe Institutoko ikaslea. Laguntzailea: Josune Iñarra.

Olerki alorrean:

Lehen Saria: «Teilatuan kontaktzen nizekizun ipuinak». Egilea: **Amets Zuazo Garmendia** (Irun - Gipuzkoa). Pio Baroja ikastetxeko ikaslea.

Bigarren Saria: «Egunen baten». Egilea: **Ekiñe Aristizabal Tolosa (Oiarzun - Gipuzkoa)**. Usandizaga Amara-Peñaflorida Institutoko ikaslea. Laguntzailea: Ainitze Aristizabal Tolosa.

Hirugarren Saria: «Ametsen bidaide». Egilea: **Olatz Mitxelena** (Oiarzun - Gipuzkoa). Haurtzaro Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.

Epaimahaiko kideek ondoko lanak argitaratuak izatea eskatzen dute:

- «Aldaketaren zain». Egilea: **Lorena Orozko Andonegi** (Donostia - Gipuzkoa). Axular Lizeoko ikaslea. Laguntzailea: Esteban Mitxelena.
- «Inguma». Egilea: **Jon Samaniego Arrieta** (Pasai San Pedro - Gipuzkoa). Pasai Lezo Lizeoko ikaslea. Laguntzailea: Julen Ezkurdia.

PREMIOS LITERARIOS R. M. AZKUE 2003

Nota de prensa

- El certamen está dirigido a jóvenes de entre 11 y 18 años
- Presentados 385 trabajos

Hoy, 12 de marzo, en la sede de Euskaltzaindia de Bilbao, se ha procedido a la proclamación pública y entrega de premios del Concurso Literario Resurrección María Azkue correspondiente al año 2003. Estos premios fueron creados por la propia Academia de la Lengua Vasca y por la Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa para fomentar la creación literaria entre los más jóvenes.

Los premios Azkue están divididos en dos categorías: categoría A, para los chavales de edades comprendidas entre los 11 y los 14 años; y categoría B, para los que tienen entre 15 y 18 años. En cada categoría se admiten dos géneros literarios, narración y poesía.

Éstas son las cifras de participación correspondientes a esta edición:

Categoría A, narración: 206 trabajos.

Categoría A, poesía: 15 trabajos.

Categoría B, narración: 113 trabajos.

Categoría B, poesía: 51 trabajos.

En total, pues, se han presentado un total de 385 trabajos.

Jurados

La composición de los Jurados ha sido la siguiente:

Categoría A: Igone Etxebarria Zamalloa, Manu Lopez Gaseni y Amagoia Lopez de Larruzea Zarate.

Categoría B: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta y Kirmen Uribe.

Ganadores

El Jurado de la *Categoría A* ha acordado otorgar los siguientes premios:

Narración:

Primer premio: «Tikot Ortxatarren historia». Autora: **Enma Arestegi** (Hazparne - Lapurdi). Alumna del colegio Xalbador de Kanbo. Ayudante: Pruden Sodupe Azkune.

Segundo premio: «Bizitza bat bidean aurrera». Autora: **Maite Agirre Mujika** (Beasain - Gipuzkoa). Instituto Loinazpe de Beasain. Ayudante: María Jesús Iñarra.

Tercer premio: «Laguntza eske». Autora: **Alaitz San Vicente Martin** (Gasteiz - Araba). Ikastola Tokieder. Ayudante: Miguel Ruiz.

Poesía:

Primer premio: «Denbora». Autor: **Hodei Balanzategi Sustaeta** (Arrasate - Gipuzkoa). Ikastola Arizmendi de Arrasate. Ayudante: Mariasun Garai.

Segundo premio: «Ahizpa ttipia». Autora: **Enma Arestegi** (Hazparne - Lapurdi). Colegio Xalbador de Kanbo. Ayudante: Pruden Sodupe Azkune.

Tercer premio: «Zure besoetako babes». Autora: **Maialen Linazasoro Elorza** (Arrasate - Gipuzkoa). Ikastola Arizmendi de Arrasate. Ayudante: Mariasun Garai.

El Jurado de la *Categoría B* ha acordado los siguientes premios:

Narración:

Primer premio: «Amildegiaeren amaieran». Autora: **Ane Arbillaga Etxarri** (Pasai Donibane - Gipuzkoa). Lizeo Pasai Lezo. Ayudante: Julen Ezkurdi.

Segundo premio: «Whiskyarekin dantzan». Autora: **Ihintza Erremundeguy Beloki** (Baiona - Lapurdi). Lizeo Etxepare Lizeoko. Ayudante: Irune Beloki.

Tercer premio: «Bizitaz haratagorako gutuna». Autora: **Arantzazu Ugarte Zubia** (Oñati - Gipuzkoa). Centro Elkar Hezi de Oñati. Ayudante: Larraitz Madinabeitia.

Asimismo, el Jurado recomienda publicar los siguientes trabajos:

- «Mespretxuaren samina». Autora: **Bidatz Badiola Imaz** (Ataun - Gipuzkoa). Instituto Txindoki Alkartasuna. Ayudante: Joxean Otaegi.

- «Elezahar apokrifo bat». Autor: **Antton Alberdi Estibariz** (Elgoibar - Gipuzkoa). Instituto de Educación Secundaria de Elgoibar. Ayudante: Andres Alberdi.
- «Saint Georgeko ikasleen misterioa». Autor: **Jabi Rodriguez Mariano** (Segura - Gipuzkoa). Instituto Loinazpe de Beasain. Ayudante: Josune Iñarra.

Poesía:

Primer premio: «Teilatuan kontatzen nizkizun ipuinak». Autor: **Ametz Zuazo Garmendia** (Irun - Gipuzkoa). Centro Pío Baroja.

Segundo premio: «Egunen baten». Autora: **Ekiñe Aristizabal Tolosa** (Oiartzun - Gipuzkoa). Instituto Usandizaga Amara-Peñaflorida. Ayudante: Ainitze Aristizabal Tolosa.

Tercer premio: «Ametsen bidaide». Autora: **Olatz Mitxelena** (Oiartzun - Gipuzkoa). Ikastola Haurtzaro. Ayudante: Kontxi Begiristain.

El Jurado recomienda la publicación de los siguientes trabajos:

- «Aldaketaren zain». Autora: **Lorena Orozko Andonegi** (Donostia - Gipuzkoa). Liceo Axular. Ayudante: Esteban Mitxelena.
- «Inguma». Autor: **Jon Samaniego Arrieta** (Pasai San Pedro - Gipuzkoa). Liceo Pasai Lezo. Ayudante: Julen Ezkurdia.

AZKUE SARIAK

Egoitzan, 2004-X-22

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Egun denoi eta prentsari bereziki, egun on.

Nik uste dut autore bakotzak edo idazle bakotzak baduela holako lilura bat eta da ikustea bere prosa edo poesia ezarria liburu batean. Hor sortzen baita, horrekin zabaltzen baita, bestengana joaiten baita orohar eta mezulari gisa baita. Beraz, uste dut gazte horiek ere holako zerbait merezi dutela eta hain zuzen, 2003an agertu ziren narrazio eta olerkiak edo orduan sariztatuak izan zirenak, hemen agertzen dira eta denetarik bazen orduan, bai Iparraldekoak baziren eta bai Hegoaldekoak ere eta, beraz, nik uste dut hor gure goresmenak merezi dituztela, jadanik emanak direnak. Baina, ez nituzke ahantzi nahi edo ahaztu nahi, epaimahaikoek egin duten lanarengatik, A mailan: Igone Etxebarria Zamalloa, Manu Lopez Gaseni, Amagoia Lopez de Larruzea Zarate eta B mailan: Joseba Butron, Xabier Kaltzakorta –hemen daukaguna– eta Kirmen Uribe.

Xabier Kaltzakortak egin du liburu honen prestatzea eta nahi dizkiot nire eskerrik beroenak eman egin duen lanarengatik eta pentsatzen dut orain bertan hortaz mintzatuko dela eta emaiten diot hitza.

* * *

Eskerrik asko zuri, nik uste dut hemen BBKkoa badela, beraz, horrek esan nahi du berriz segituko dugula eta Joserra Bilbao jaunari emanen diot hitza orain.

* * *

Eskerrik asko. Aipatu dituzu haur horiek eta arrazoiekin merezi baitute, nik ez nituzke ahantzi nahi ere aita-amak. Heiek trasmizioa egin baitute euskara pasatuz belaunaldi batetik bestera eta animatu baitituzte haurrak lehenik irakurtzen eta gero, uste dut, hor direla ere maisuak eta irakasleak heiek bultzatzeko eta horiek dira gure geroa, dudarik gabe.

Eta bukatzeko, norbaitek badu zerbait galde egiteko? Kazetari horien-gandik, ez baldin bada erranen dugu eta goizeko ekitaldi hau bukatutzat emaiten dudala.

* * *

Eskerrik asko zuei hona etorririk.

AZKUE SARIAK

*Euskaltzaindiaren egoitzan,
Bilbo, 2004-X-22*

*Jabier Kaltzakorta,
euskaltzain urgazlea*

Egun on eta berri on guztioi.

Egun on Euskaltzainburuari.

Egun on gainerako euskaltzainkideei.

Egun on kazetarioi.

Eta egun on: lagun guztioi.

Nire gaurko egitekoa izan ohi da liburuaren prestakuntza zer izan den azaltea. Eta *Azkue sariketa* honetan, haur eta gazte sariketa honetan, zelan jardun dugun azaltzea. Nire lana oraingoan bikoitza izan da, epaimahaikoa izatea alde batetik, eta horretarako irakurri behar izan ditugu ehun lanetik gora, eta hor, gure ustez betiere, hautatu onentsuenak eta bikainenak; eta bestetik, liburuaren prestakuntzarako puntuazioa eta sintasiaren ardura hartzea.

Eta behin honetaraz gero, holako lanetan nabilela, etortzen zait burura garai batean irakurri nuen liburu eder bat: *Un Voyage en Espagne*.

Teofilo Gautier idazleak Parisetik, oker ez banago, Portugalera egin zuen bidaia bat Euskal Herrian barrena. Eta kontatzen du hemendik, Astigarragatik, pasatu zenean, bere karroza aurrera ateratzen zitzaizkiola eskekoak edo eskaleak, eta eskaintzen zizkietela Parisko jaun handi haiei, burutik behatzen ondo jantzitakoei, ziritetan, belar fin edo elbitzetan, sartzen zituzten basamarrubi gozoak. Hori omen zen eskekoek egiten zuten eskaintza bat. Eta hori berori da neurri batean, guk hemen 'sariketan' egiten duguna. Guk ere eskaini nahi ditugu Euskal Herri osoko gazteek idatzitako testurik zapoetsuenak, testurik gozoenak, basotik harakoenak, gazteen mundua islatzen dutenak...

Eta gure zirian, sarituez gainera *akzesitak* ere sartzen dira. Modu honetara liburua ederragoa da. Ederragoa da azalez eta mamiz. Liburuaren bene-

tako azala saritu baten sariarekin loturik dagoen irudi bat izan ohi da. Liburu honen azalean Arbillaga Etxarri neskatoak idatzi duen gaiarekin lotuta dagoen irudiat azaltzen da.

Liburu hau argitaratzeko ehun lanetik gora irakurri behar izan ditugu, lehenago esan dudanez. Eta lan sarituak berak ere ondo inprimaturik geldi daiezen, puntuazioa ondo joan dadin, eta hitzak eta egiturak gure hiztegi eta sintasi arauetan ondo txerta daitezen, atzekoz aurrera eta aurrekoz atzera irakurri behar izan ditut.

Eta honetan amaituko dut neure jardun txiki hau.



R.M. AZKUE LITERATUR SARIAK:

2003ko liburua eta
2004ko oinarriak

Bilbo, egoitza, 2004-X-22

*Joserra Bilbao,
BBK - Elebitasun Zerbitzuko burua*

Egun on, mahaikide zarien Jean Haritschelhar euskaltzainburuari eta Xabier Kaltzakorta, sariketa honetako epaimahaikide eta liburuaren prestatzailari.

Egunon baita be, euskaltzain, saritu, familiako eta kazetarioi.

Gaurkoan ekitaldi bikotxa egingo dogula esan geinke. Batetik, igazko sariketan irabazle izan eta aitamena egitea merezi izan eben lanakaz egindako liburua aurkeztu dogulako. Bestetik, aurtengo sariketaren oinarrien barri emongo dogulako.

Beste ezer egin orduko, eskerrak gura deusodaz emon Euskaltzaindiari, emoten deuskun babesagaitik, eta lanok epaitzen eta argitaratzen egiten dauan beharragaitik.

Aurtongo sariketei jagokonez, esan, R.M. Azkue literatur sarietan azpimarratzekoak dirala, partehartzaileen adina, literatur arloak, diru-sariak eta epeak.

Adinean maila bi dagoz, 10-13 urte bitartekoena bata eta 14-17 urte bitartekoena bestea eta bi dira literatur arloak be, narrazioa eta olerkia. Sarietan, 3.600 euro banatzen dira.

Idazlanak aurkezteko epea, abenduaren 16an amaitzen da, gaurtik ia hilabete bira. Hagaitik, badago astia idazle gazteak enteratu daitezkan komunikabideen bitartez. Ganera, urtero legez, ikastetxeetara be informazioa bialduko dogu. Epaimahaien erabakia, datorren urteko zezeila edo otsailaren 28rako jakinaraziko da, beranduenez.

Idazle gazteei ohar bi: bata, lanak makinaz edo inprimagailuz idatzirik etorri behar dirala, eta bigarrena, saritu bako lanak desegin ala apurtu egingo dirala. Hagaitik, lanaren jatorrizkoa gordetzea komeni da, norberaren gobernurako.

Azkenik, idazle gazteei zorionak eta animoak gurako neuskiez emon eta hausnarketatxu bat egin. Honetarako, gogoratu gura dodaz aste honetan euskal idazle handi batek *Deia* egunkarian botatako eritxi gogorrak:

«Literatura negozio bat da. Gaur egun saltzen dena ez da liburua baizik eta idazlea. Idazle bakarreko literatura ez da literatura; porrota da. Euskal literaturak behar du idazle asko eta irakurle asko».

Ba nik neure aldetik haxe dinotsuet gazteoi: esandakotik azken zatiari baino ez egiteko kasu, hau da, irakurri eta idatzi, horixe behar daualako euskal literaturak.

Beraz badakizue, segi idazten eta irakurtzen, idazleak eta irakurleak behar doguz-eta.

Beste barik, eskerrik asko etorri zarien guztioi.